



DANA EDO EZEBEZ

ANEGURIA PERCEBE

## ANEGURIA AKA LA KIETA

Aneguria (Ane San Miguel Crespo, 1984, Bilbo) edo Aneguria aka la Kieta 17 urterekin hasiko da rap musika sakontzen. Abeslaria eta MC. Lapiko Klika eta La Dolce Rima taldeetako kide izan da. Eskina Femenina proiektuaren sortzaileetako bat. 2015ean La Basu rap abeslariaren diskoan kolaboratu du "Trakamatraka" abestian. 2017an "Horchata de chufa" diskoan argitaratu du, autoekoizpena. Japoniako Fuyi Rock jaialdian jo du. Azkue Fundazioak antolatutako Banden Lehiaren 2017ko edizioa irabazi du. Gero, 2018an, "Franbuesas y palomitas" (autoekoizpena) bigarren diskoa. 2018ko udan Bilbao BBK Live jaialdian zuzeneko eskaini du Behotsik Orkestra Sinfonikoarekin. Zuzeneko asko eman ditu eta Alemania, Belgika, Danimarka eta Japonia bisitatu ditu bere zuzenekoarekin. Banden Lehiaren sariaren eskutik eta berak jarritakoarekin datorkigu hirugarren diskoa.

Aneguriaren "Percebe, dana edo ezebez" hirugarren diskoak batzen ditu modu dantzagarrian elektronika, popa, rapa eta reggae ukituak. Melodiek oinarri erritmiko elektronikoko gozoak dituzte, abesteko pop estilora lerrotatu da Aneguria baina raparen jarrerarekin. Kantaria, rap zalea, elektronikaren alde poperoaren zale, reggae eta melodia, MCa, bat-bateotasun harrigarria duena agertokian, publikoa erakartzen dakiena, abegitsua, bizitza plazerarekin bizi nahi duena, lotsagabetasunaz mugitzen dakiena, sexuaren gainean argi hitz egiten duena. Hori bada Aneguria, horixe bera da aurkituko duzuna "Percebe, dana edo ezebez" diskoan.

## ASKI DA

Gehiagi luzatu den lan harremanak kokoteraino nauka. Harreman intimo batek ere kokoteraino jartzen nauenean haustura emozionalera narama. Garai berriak hasteko ordua da inoren mugarik sentitu gabe.

## YA DORMIRÉ MAÑANA

Asmorik eduki gabe katigatu dut neure burua. Esnatu eta ogia erostera jaistea zen asmoa baina ez naiz itzuli hurrengo egunera arte. Gosaltzeko kafesnea hartu beharrean marianitora gonbidatu dut neure burua eta, orduan, ez dakizu noiz eta nola bukatuko den eguna. Gauaz gozatu, hondartzaz... Dena abailan datorkit.

## HOSTIAS COMO PANES

Beldurra alderdiz aldatuko da. Gero eta neska gazte talde gehiago dago eta antolatuta. Emakumeak batzen dira beste emakumeekin ongi pasatzeko, antolatzeko eta hausnarketak egiteko kalean eta eraso sexualeri aurre egiteko. Emakumeen borrokarako ereserki bezalako bat izan nahi du. Manadaren kontra. Lelo txiki batek laburbiltzen du egoera: kalean igarri da, antzematen da haize berria...

## ATEAN KNOCK KNOCK

Ez dakizu zer gertatuko zaizun dena zoriaren edo patuaren eskuan jarrita ondoren. Ez dakizu nork joko duen atea. #alfredo, Hasel, Valtonyc, Eligio eta hainbat datozkit burura, ideiak ozen eta argi esateagatik espetxeratuak edo zigortuak. Japoniar hiru tximuek ez dute ikusten, ez entzuten ezta hitz egiten ere.

## TU PIEL CONTRA MI PIEL

Goraino betetzen zaituzten sexu harremanak izan ondoren haragiaren ekarpen eta gustuaren edo zirrararen sentsazioek egunetan diraute gorputzean. Airean joango bazina bezala, igota eta desiratuz pertsona horren usaina edo zeurea. Haragiaren desira eta bizioa. Edertasun jarria duzu eta limurtasuna indarrean, puri-purian.

## NON ZAUDE

Hausnarketa pertsonaletatik fikziora. Bizitzak eraman nau hiru segundoko ausardia izatera, ezezagunei telefono zenbakia edo plana eskatzera. Beti nintzen "jatortxo" "...ez dakit noren neska-lagunaren laguna" eta, beraz, ez nuen ligatzen eta neu ausartu nintzen lehen urrats hori ematera. Xedea zen ligatzea topo egiten nuen lehenengo pertsonarekin, edo aukeratu eta prozesu horretan hotelak lotu, gonbidatu, ligatu eta saltsara. Dramarik ez, plana plana da eta erromantizismoa desagertzen da nik lehenengo pausua ematean eta zure bila eta zurekin zerbait nahi dudala esatearekin batera.

- 1.- ASKI DA
- 2.- YA DORMIRÁS MAÑANA
- 3.- HOSTIAS COMO PANES
- 4.- ATEAN KNOCK KNOCK
- 5.- TU PIEL CONTRA MI PIEL
- 6.- NON ZAUDE
- 7.- TU PIEL CONTRA MI PIEL (remix)
- 8.- NON ZAUDE (remix)

Aneguria: letrak, ahotsa, ahots melodia, egilea  
Edu Ostos (FBT studios, Madril): abestiak ekoitzi, nahastu, masterizatu (1, 2, 3)  
Ikki: abestien oinarri instrumentalak, ahotsen eta abestien nahasketa, masterizazioak (4, 5, 6)  
Euridia estudioak: ahotsen grabaketa (1, 2, 3, 4, 5, 6)  
Axular Arizmendi (AME estudioak): remixak (7, 8)  
Garikoitz Badiola: tronboia  
Antton Calleja: alboka  
Axular Arizmendi eta Larraitz Pie de Hierro: txalaparta  
The Hot Pens Ink: diseinua  
Mauro Saravia: argazkiak



f aneguria  
@ aneguria  
artepilpilean

AZKUE  
FUND  
baga biga  
MUSIKA IDEIAK

Telf. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus  
221 PK. 48100 Mungia (Bizkaia)

ritxi aizpuru + aneguria (2018ko irailaren 26a)